

Langai

1990 ko MAIATZA

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

ZENB. 7

Batasun Nazionala Erabakiak

90. Hauteskunde Sindikalak


Zbkia

ZA
BAI
TZEN

TXT 10010
DOKUMENTAZIO
ZENTROA

GAIAK

1.- SARRERA	3
2.- KONTEXTU POLITIKOA	4
3.- LANGILE MUGIMENDUAREN EGOERA	6
3.1.- Sindikal konfrontazioaren kontextu berria	6
3.2.- Pragmatismoa - kontzientzia sozialaren debaluazioa	8
3.3.- Sindikalismo erreformistaren helburuak	9
3.4.- Erreformismo sindikala	10
3.4.1.- CC.OO. - U.G.T.	10
3.4.2.- E.L.A.	11
3.5.- LAB-en finkaketa	12
3.6.- CUIS, CC.OO.-ren ezker sindikala, STEE-EILAS... ..	15
4.- LANGILEEN ORDEZKAKETA INSTRUMENTUEN BALANTZE-BILAKERA	15
5.- HAUTESKUNDE SINDIKALAK	16
5.1.- Garrantzi politikoa	16
5.2.- Sindikatuaren helburuak	17
5.2.1.- Gure presentzia finkatu	17
5.2.2.- Gure ordezkaritza zabaldu	17
5.3.- Kanpaina estratejia.....	20
5.4.- Lan plangintza	26



1. SARRERA:

Lan-oinarri honen bidez hauteskunde sindikal hauek behar bezala kontextualizatu nahi ditugu, honekin batera militantzia guztiari interbentzio eredutzat balioko dion mezu, aktibitate,... estratejia bat definituz. Zentzu honetan, Batasun Nazionalak sindikatuaren jarrera karakterizatzeko azken markua izan nahi du, baina inola ere ez du izan behar hauteskunde sindikalei buruzko gure aktibitatearen «abiapuntu»

Hauteskunde sindikal batzuk LAB-entzat duten garrantziaz hitz egin edo aipatzea erreferentzia topikotzat har daiteke hasera batetan, baina benetan aurkitzen gara motibazio desberdinez rebalorizatutako konfrontazio baten aurrean. Borroka sindikalarrako kontextuaren aldaketa nabariek, gestio kapitalistadun sistemaren baitan sindikalismo «ofizial» edo «erreformista»ren instituzionalizaziorako joera azkartzeak, euskal prozesu politikoaren bilakabideak, LAB bezala ENAM-en sartutako erakunde batentzako suposatzen dituen konnotazioekin, eta «paktuak» Euskal Langileri Mugimenduaren baitan proiektatzeko ahalgin daitezkenak hauteskunde testak sindikatuarentzat duen entitate berezia determinatzen dute.

«Hauteskunde aurreko» etapa bete betean aurkitzen gara, sindikatuak bere barne eta kanpo lana dimentsio guztietan hareagotu behar duelarik. Negoziazio Kolektiboak, diskurtso sozioekonomikoak, bilakabide organizatibo eta formatiboak, mobilizazio espezifikoak,... erakune indartsu, koherente, gogor eta zabaltzen ari den erakunde bezala proiektatu behar dute LAB. Lan azelerazio guzti honetan, «hauteskunde sin-

dikaletarako batzorde» guztiek benetako «gorputz» eta funtzionamendu praktikoa hartu behar dute ORAINTXETIK.

Hauteskunde Sindikaletarako Batzordetik bere lurralde esparru desberdinetarako aktibitate espezifiko eta PLANIFIKAZIO ZORROtz horren arteko osagarritasunaz, sindikatu guztiaren baitan AHALEGIN GEHIGARRI baten beharra barneratzeko beharra agertzen du. Gaur egungo estrokturak dinamismo handiagoa hartu behar dute eta, noski, delegatu eta sail sindikalak estrokturen zerbitzura jarri behar dute aurre egin beharreko lan guztiak osatu edota aurrera eramateko.

Desafioa oso garrantzitsua da. Ez ditugu helburu kuantitatibo zehatzak jarriko. ENAM-aren aurreratzeak, LABek ELMan daukan gero eta iragazkortasun haundiagori dago-kionez, helburu taktikoa izateaz gainera helburu estrategikoa ere du. Taktikoa, KAS Alternatibaren Negoziazio Politikoruntz euskarri eta defentsa gehiago finkatzeko; estrategikoa, Independentzia eta Sozialismorako bidean, Euskal Herri Batu eta Euskaldunear.

LAB-eri inork ez dio ezer «oparituko», alderantziz, diskriminazio, intoxikazio, maniobra saboteatzaile,... e.a.i aurre egin behar ko diegu. GURE EGUNEROKO AHALEGINA, BIDE POLITIKO-EKONOMIKO KOHERENTE ETA TINKO BATEN KONTEXTUAN EMANDAKO APORTAZIO MILITANTEAK DIRE GURE FUNTSEZKO BALIABIDEAK. **Animo eta aurrera. Aurrera Bolie!!!**

2. KONTEXTU POLITIKOA.

Hauteskunde hauen kokagune den panorama politikoak faktore determinatzailetzat du PSOE, EAJ, EA, EE,...ren apostu politikoak dituen baliabide eta maniobra guztien bidez ENAMen aurrerakada eta bide politiko ahultzeko.

Gure herriaren erreibindikazio nazional eta sozialen defentsan ENAM-ek eraman duen bide zuzen eta kontsekuenteak, «nazionalismo-errejionalista» piskanaka PSOEK bultzatutako konfrontazio parametroetara joatera bultzatu du. Bere borroka tinko eta sakrifikatuaren bidez ENAM sartuz joan den heldutasun politikorako koordinada berrietara (Estatuto-amejoramen duaren porrota eta Euskadi-Estatua harremanetarako eredu berri baten beharra) duintasun eta zentzu autokritikoz egokitu eta onartzetik urrun, EAJ-EA-EEko zuzendaritzek Casinello, PSOEren tesien dimensionamendu objetiboaren alde jokatu dute azken bi urteotan; PLAN ZEN famatu hartan tipifikatutako tesiak.

Alderdi hauentzako, bere hautesleen baitan kosteak ekidinez beren jarrera desdibujatzeko egiten dituzten malabarismoez gain, «etsaia» ez da «botere zentrala» eta hark behin eta berriz ukatu edo baldintzatzen dituen erreibindikazioak (FOPen «repliegea», Gobernadore Civilak, Autodeterminaziorako eskubidea,...), baizik eta «batzen» dituen FAKTORE HOMOGENEIZATZAILA gure herriaren gehiengoak eskatzen dituen exijentziak tinkotasunez defendatzen dituen aukera politikoarekiko eraso da.

EAJ-EA-EEren aktibitate politiko orok «erreferentzia puntu»tzat du ENAM, gizar-tean PSOE eta botere faktikoen taktika politikoaren aleko tentsioak sartuz. Madrilekin «erasorik gabeko», elkarrizketa eskatzaile, aurkeztezinezko ekintzak sakontasun eta

garrantzia gutxitzeko ulertasunez mozortutako menperatze (AD.E. eztabaida, losu), presoekiko errepresio zuzenean laguntza, losuren erahilketan Corcueraren «gestioekin» adostasun, HBk partehartzea ekiditeko Kongresuko arautegia aldatze,... «paktu» jarraitu bat dagoen bitartean, ENAMen aurka desprestijio, eraso, intoxikazio,... dinami-ka setati bat artikulatzen da, Bake, tolerantzia,... eta antzeko kontzeptudun aterki ziniko batenpean, arruntki patrimonializatu nahi dutena.

Batzutan, harrigarria da, biszeralismo formal gehiago dago ENAMen aurka EAJ-EEren aldetik, PSOE edo PP-UPNren aldetik baino. Hau da, Euskadin PSOEk dagoneko ez ditu behar momentuko «Damboreneak» HB zirikatzeke, baizik eta badaude Arzulusak, Ardanzak, Aulestiak,... lan «zikin» honetarako.

Erreflexio honen azken adibidea da Autodeterminaziorako Eskubideari buruzko Parlamentu Vascongadoko plenoa. EAJ-EA-EEK, beren planteamenduari erantzun baino gehiago, nazionalismo español eta botere faktikoekiko exijentzia politiko mailak aurkeztuz, «homojeneoki» ENAMek lideratutako Euskadi-Estatua enfrentamenduaren bilakabide baten erritmora beren jarrera politiko debalatu edo/ta egokitzen duten alderdi batzuen «kontzientzia» bilakatutako HB bat desakreditatu besterik ez zuten egiten. HB, ENAM orokorki, nazionalismo-errejionalista «bilustuz» doa, bere mezu politiko sartzeko tesitura zailagotan jarritz. Bere «orekak» garbiak dira zegurtasuna adierazi eta «kontraesanak» ENAMen barrikadan jarri nahi badituzte ere.

Azken batetan, «nazionalismo demokratiko» honek, «nazionalismo-konstituzional» honek nahiago du, indarrean dauden beren zuzendaritzetatik ateratzen den bidean,

PSOE eta botere faktikoen apalkuntzara egokitu, ENAMen aurkako bere «guru-tzadan» jarraituz, gure herrirako benetako DEMOKRAZIA ETA SUBIRANOTASUN parametroetan IRTENBIDE POLITIKOEI aurre egin eta lagundu baino. Alderdi hauen zeregin politikoan ematen den enfoke edota itsutasun «aldaketa» hau beti, ez bakarrik KUANTITATIBOKI aurrera egiten duen, baizik eta nazionalismo horrek bere proiektu politikoan minimoki zutik mantentzen zituen borroka politikorako faktoreak BEREGANATZEN dituen ENAM baten funtzioan dago. Hau da, «beraien» diskurtsoa hain dago Konstituzioan ezarritako «hesi» politiko-estruturalek mugatu eta baldintzatu, ENAMen aurrerakadak eta «beren» proiektuaren desgasteak urduri eta ENAM horrekiko erabat belijerante jarri dituela.

Nazionalismo-errejionalistaren ekintza politikorako bide hau momentu politikoaren funtsezko ezaugarria da, ENAMetik, artikulatutako «kortse»a ahuldu eta baldintzatu eta eragin sozialeko baseak zabaldu-indar pilaketarako baldintza subjektibo eta objektibotan kokatuko gaituen erantzun zorrotz eta egoki bat behar izanaz.

10-en kointura analisiak erreflexio hau monopolizatzen zuen eta Sindikatuak bere egokitze eta konpromezu maila asumitu behar du nazionalismo-errejionalistaren taktikari PORROT EGIN ARAZTEKO helburuan. Euskal langileengan dugun inplantazioa eta beraingana iritxi edo eragiteko era beti NATIDOTO bat izango da intoxikazioaren, debaluazio ideolojikoan, ETA-ren aurkako belijerantziaren,... aurka, «bunker» erreformistaren zerbitzura dauden mass-mediak eguneroko bultzatutakoak.

ENAMen erresistentzia eta aurrerakada politikoa —geldia baino jarraitua— borroka desberdinen osagarritasun zuzenarekin ba-

tera, erreformismoaren taktika ABORTATU eta baldintzatzeko klabeak dira benetan, ondorioz Euskadirako DEMOKRAZIA, SUBIRANOTASUN, NORMALIZAZIO eta BAKE-aren benetako artikulazioaren SINONIMO izango den Elkarrizketa-Negoiazio prozesu dinamiko bat irekiz.

Enfrentamenduaren kanpo pantaila honen atzean badago, era berean, PSOE eta erreformisten ekinbide politiko guztian eragiten duen korapilu handi bat: botere faktikoek. Heldutasun prozesu desberdin eta ez nahikoak dituzten «guardian» politiko batzu, bere jarrera edota ekintzen bidez (Iosuren erahilketa, A.D.E.ren aurreko jarrerak,...) «español demokrazia gaztea» deitutakoaren benetako DEFIZITA adieraziz. Zenbait sektore faktikoak Estatuko politika orokorrean duten eraginak, batez ere «barne» egoerari dagokionean (estatu eredu), arazo garrantzitsuak sortzen jarraitzen dizkie klase politiko guztiari. Hau ENAMek bere interbentzioa fokalizatu behar duen funtsezko faktore bat da, bai barne kontraesanak sortzeko eta bai euskal gatatzak duen irtenbide egonkor eta posible BAKARRAREN aldeko klima politiko eta «faktiko» bat bultzatzeko: negoziazio politikoaren alde.

Honela bada, atzekalde faktiko honek ere gero PSOE, EAJ, EA eta EE-k makurki onartu eta aurrera eramaten duen «antzzerki» politikoaren faktore determinatzaile bat izaten jarraitzen du, Bakearen eta benetako demokraziaren aldeko benetako borrokalarien (beren medioekin bat etorri ala ez) barrikan jartzeko kemenik edo borondate politiko demokratikorik ez daukatelarik: ENAMekin batera.

Beraz LABek hauteskunde sindikal haue-tan bere paper bat du «betetzeko» ENAMekiko eta kontextu politikoarekiko bere emaitzan. Gure eragina zabaltzea, langileekiko

egunoroko interbentzio eta lana hobetzearekin batera, eragin handia duten faktoreak dira ENAMen helburu taktiko eta estratejikoetarako baldintzak sortzeko funtsezko funtzioa du, erreflexio, galdera,... mailak sortuz LABek jarraiki ELM-an sartu behar dituen informazio, kontraste, eztabaida eta ideologizazioaren ondorioz, langile sektore gehiagok ENAMen proiektua indarren «ikustatu» eta indarrez laguntzea posible eginez. PROIEKTU POLITIKO POSIBLE BAT, BIDERAGARRIA, EUSKAL LANGILERIAREN HELBURU OBJETIBORAKO BULTZATU BEHARREZKOA.

3. LANGILE MUGIMENDUAREN EGOERA.

Langile Mugimenduaren egoeraren analisi zehatz bat zertifikatu nahi izan gabe, hauteskunde sindikal hauen perspektibak zehaztasun handiagoz kontextualizatzen eta, era berean, militantziaren baitan kontraste elementuak irekitzen utziko ditugun erreflexio batzu ematen ditugu.

3.1. Konfrontazio ekonomiko-sindikalaren kontextua.

a) Bilakabide edota koiuntura ekonomikoaren sakontasun handiegitan sartu gabe, «jolastoki» aldaketa nabaria da. Birmoldaketa Industrialak, hobe langileria konturako «garbikuntza» ekonomiko prozesua deitzea, bukatu du bere etapa «gogorra» (oinarrizko sektoreak: integrala, altzairu bereziak, itsasgintza,...) eta hazkunde ekonomikoak —bertsio kapitalistan— erreibindikazio eta exijentzia ekonomiko-sindikalaren kontextu berri bat sortu du, langabeziaren sakonketa, enpleguaren gutxitzea, Seguritate Sozialarekiko sakontasun kargak, desberdinatsunen gehikuntzak,... eman badira ere.

Sindikalismo erreformistak, «Birmoldaketa» prozesu guztian ekintza sindikal etsitu baten bidez enfrontamenduaren amortiguaziorako oinarrizko zutabe izan dena, bertan «aseptikoki» onartzen zelarik, termino politiko-ekonomikoetan erantzun konerentetun planteamenduei aurre egin gabe, amuzki ekonomiko eta Lan Sustapenerako Fondo fraudulento batzuen bidez EXZEDENTE-DESMANTELAMENDU SEKTORIAL-KALERATZE-IXTEak onartzeko Botere ekonomikoaren filosofia, sindikalismo erreformistak, esan bezala, azken hila-beteetan berreskuratu egin nahi du urteetan zehar beren tutore politikoen interesen zerbitzurako sindikalismo horiak oso zigortutako «ordezkaritza», «lejitimitate»,... bat.

CCOO-UGT-ELA, beren «zuzentzaile» politikoei jarraituz, demokrazia «bijilatu» baten «egonkortasuna»ri eman zioten lehentasuna, bertan zentralismo eta neoliberalismo kapitalistak beren hegemonia mantentzen zuten «gestio» eta formalitate «demokrati-koa»n zituzten estetika politikoen bidez, langileen interesen defentsa KOHERENTE baten eta, batez ere, langileria kontzientzia eta mobilizazio indarrez «armatzeko» gai izango zen kontzientzia politiko-ideologiko handiago bat Langile Mugimenduan satzearen aurretik. Pakto edo kontzertazioen bideak, «lasaitze» sozial instrumentu modura eta ez dialektika, borroka erreibindikatio eta lorpen praktikoen aurrerakada modura, sindikal ekintza burokratiko baten ondoriozko desmobilizazioak, klase konfrontazioan oinarritako diren kontzientzia baloreak L.M.tik kentzeak,... eragin garbiak izan ditu L.M.aren egoeran, baina baita ere sindikatu erreformistengan beraiengan ere, Afiliazio gutzitzea, sinesgarritasun eza, langile exijentziekiko «desengantxea»,.... «klase laguntza» fase «gogorra» bukatu ondoren beren interbentzio sozio-ekonomikoan

«akordio» politikari indarra kendu behar zion/dion benetako faktoreak dira, bertan protagonismo eta eragin sozialak beren sistema sozialaren solaskide edo bisagra paperaren «birsortze» batetarantz bultzatuko dituztelarik.

b) PSOEren politika sozio-ekonomikoak baldintza objetibo handiagoak jartzen ditu paraleloki sindikalismo erreformistak, egokitze ekonomiko-birmoldaketa prozesuaren lan «zikin» eta eskergabeetan kokatua dagoe-na, inizatiba soziala berreskura dezan, are gehiago PSOEek lideratutako eta sindikatu horiek mantendutako «hazkunde ekonomikoak» desberdintasun sozialak eta patronalaren botere zuzen eta eragina (egoera «ambiental»en, juridikoen, ... ondorioz) biderkatzea jotzen duenean —ezin zuen beste edonola izan langileen erantzun jarraiturik gabe—.

Sindikalismo erreformistak aurreko praktika sindikal eredueta gelditzeak gizartearen «desagertze» bat suposatuko zukeen, erreala ez baino bai efektiboa, alde batetik ezker sindikalaren korrienteak bultzatuz «LAB Euskadiko kasuan») eta, bestalde, desafiliazio edo desenkantua.

Hemendik bisortzen da protagonismo politiko-publiko bat, mezu «radikalizazio» bat langileria eta herri kapen eskaiarekin sintonizatzeko helburuan,... Hauek, Langile Mugimenduak jasaten dituen injustizia eta errepresio «abonu»arekin, Abenduak 14a «lehertzeko» eta ondoren «sindikalismoak» bizitza publiko-sozialean izan duen eragin hazkorrerako oinarriak dira.

Gaur egun (matiz garrantzitsuekin Euskarako eta Estaturako «homojeneo» edo baliogarri den erreflexio baten baitan) bada, konfrontazio ekonomiko-sindikalean, «lanpostuaren» aldeko borrokak, «birmoldaketei» erantzunak,... ekintza sindikalaren nu-

kleo zentral izatez utzi dute izugarrizko protagonismoa hartu dutelarik enplegu urritasunarekiko erreferentzia eta erantzunak, defizientzia sozialak, pentsio urriak, fiskalitatea,...; hau da, lehenago CCOO-UGT-ELAK DEBALUATU eta NEGATIBOKI BALDINTZATU ere egin dituzten arazoa, sindikatu horiek eta Gobernuak jestatutako desarroilo lejislatibo bidez (Ley Básica de Empleo, Ley Orgánica de Libertad Sindical,...) edo langileen helburuei estrukturalki eragiten zienean erantzun koherenterik gabe onartuak (Seguritate Sozialaren erreforma, Pentsio Fardoak,...), ORAIN rebalorizatu egiten dira sindikalismo erreformista honen ekintza eskalan. Lehen, kurioski, arazo horietan sakonki «sartzea», UCD, PSOE edo EAJren politika sozio-ekonomikoa karakterizatuz, sindikalismoaren ekintza «politizatzea» zen.

«Aldaketa» honek, zeinaren helburuak saskotasun gehiagoz aztertu beharko dira kontutan izango diren estrategia berrien arauer, beharrezkoa du ELMarekiko gure lan bidetan egokitze bat Barriako Batasun Nazionalean adierazitako bidean. LABek aurrera eramane duen konfrontazio ekonomiko sindikalaren kontextualizazio zehatz bati erabat egokitutako bidea, ikusten diren egungo eta etorkizuneko ezaugarriek egokitu behar zaie lan egiteko moduan, interbentzio lehentasunetan eta antolaketa bilakabidean. Ezin dugu utzi Euskadin sindikalismo erreformista itxura eta indarrez «zuzpertzeta» aurrera eramane duten kludikazio eta desmobilizazioaren ondoren, are gehiago harreman ekonomiko sindikal hauen «politizazioa» positibo eta mesedegarria denean LMarekiko gure ekintza sozio-politikoarekiko kontextu honetan benetan «lan egiten» badakigu.

LABek kontextu hau kapitalizatu behar du, euskal langileen erreibindikazio berehalako eta objetiboetan sartzeko kapazitate eta bide koherentearen ondorioz, erreformismo sin-

dikalaren «ituragarbitze» hau neutralizatuz, ELMarekiko zabalketa eta eraginean aurrera eginez eta, horrekin, euskal prozesu iraultzaile baten bilakabidea erraztuko duten kontzientzia politiko mailak bultzatuz (aldaketa iraultzaile jarraituzko prozesua). Prozesu honen gaur egungo ardatza Negoziazio Politiko baterunzko indar pilaketan kontzentratzen da, gure herriko gehiengo sozial aberzale eta langilearen exigentzien berbideratze estrukturala positiboan bultzatuko dituzten helburu taktiko batzu lortzeko instrumentu modura.

3.2. Pragmatismo

Kontzientzia debaluazioa.

Erantzungaitza gertatzen da pragmatismoaren bilakabide ezezkorra eta ELMaren baitan eman den kontzientzia debaluazioa; elkartasunik eza, egoismoa,... eta antzeko baloreak oso bildu dira langile sektoretan sindikalismo erreformistak aurrera eramandako lan zeharo txarraren ondorio oso ZUZEN modura —sistemak bultzatutako intoxikazio guztiarekin batera—.

Zentzu honetan ELMrako erreformismo sindikalak duen «ofentsiba» berrirako base potentzialak nahiko mesedegarriak dira baldintzatze handiagoko «kuña» modura LM horretan LAB sartzeko zailtasun edo ezintasunaren aurrean. Jasandako «barne» arazoen, prozesuaren fase honetako enfrentamendu orokor politikoaren baldintzatzaileak eta gure «sindikatu izaeran» eskema menezatzaileak ez du bultzatu sindikalismo erreformistaren interbentzio klandukatzaile eta kontraesandunaren zabalpen edo kapitalizazio handiagoa LAB-entzat. Erreflexio honek ez du kontrajarri behar 86an emandako ahalegin eta salto garrantzitsua, azken bi urteotan emandako aurrerakada organizatibo garrantzitsua eta lantzen ari garen lan expektatibak, baina bai esan LAB-en gaur

egungo pisua maila altuagotan egon behar-ko lukeela ENAM eta prozesu guztiaren beharretarako.

Haserako erreferentzia jarraituz argi aipatu behar dugu LMarengan sartutako baloreen erantzunkizun zuzena ez dela erreformismo sindikalarena bakarrik, baizik eta orokorki sistemak urteak daramatzala langile eta kapa herrikoien pentsamoldean pozoin ideologikoa sartuz. «Intoxikazio» eta deformazio ideologikorako medioak (mass-mediengehiengo), indarrean dagoen status quoaren defendatzaile on direnez, «pozoin» horren eramale handiak izan dira. Aldaketa sozialekiko desprestijioa, langileentzako utopiko edota helburu direnen ridikulizazioa, herrialde sozialistetako bilakabidearen desinformazio lotsagarria, beren egoera deskontextualizatuz eta «merkatu libreko ekonomia»ren mesedeak zeruetan jartzera jotzen duen diskurtso batetan sartuz, «kultura merkantilista» bat bultzatzea, ongizate mito berrien idealizazioa eta gazte langileenganako «realizazio» pertsonala (lehen kirolariak eta orain bankariak, enpresariak, yuppiak,...), enpresariaren papel soziala positiboan «eraikiz» klase konfrontazioaren zorrotasuna leuntzea, ...eta askoz ere gauza gehiagok eragin dute eta eragiten dute erakunde iraultzaileen ideologizazio positiborako kapazitatearen gaindik eta, era berean, konfrontazioan koiunturalki agertzen diren kontraesan edo puntu bero negatiboen gaindik.

Klase konfrontazioan erakunde iraultzaile eta aldatzaileek instrumentu JURIDIKO, POLITIKO eta SOZIAL SARRERAKO instrumentuak EDUKITZEKO duten zailtasunak «medio» edo euskarri DEFIZIT bat eragiten du, honek politika bidean duen itzulpen zuzenak ENAMen taktikaren ZUZENTASUNA baieztatzen digularik. Konfrontazio politikoan beste maila bat aurrera eramateko instrumentu modura ulertutako helburu taktiko batzu

—KAS Alternatiba— lortzeak bakarrik jarri ahal izango ditu erakunde iraultzaileen esku (gaur egungo momentu politikoan ere ridikulizatutako kontzeptua hau ere) helburu estratejikoetarako bidean ibili ahal izateko «arma» juridiko-politikoak. Noski, lorpen taktikoen garrantzi horrek ezin du, ezinezkoa da, ondoriotzat izan langileriaren kontzientzia eta ideologizazio lanetan desoreka bat, ENAMek orokorki eragin behar duelarik kontzientzia nazional eta sozialaren gehikuntzak, ARAZO NAZIONALA KLASE BORROKAREN MOTORE DELAKO ZIURTASUNETIK (estrategia politikoa).

Uste sendo hau gure historiak emanda datorkigu: Kapitalismoa gure Herrian kokatu zenetik, euskal herri langileak ez dio utzi, eskura zituen modu guztiez, klase-zapaltzearen kontrako borrokari. Aldi berean Nazio-zapaltzearen izaera hartzen duen klase-zapaltzea, zeren eta euskal kapitalismoak, betitik, iraun ahal izateko, estatu espainiaren eta frantsesean, hauen okupazio armadetan, hauen zigor-tresnetan, hauen mekanismo politikoetan eta euskal kulturatik hain urruti dauden kulturetan euskarri bilatu bait du, bilatzen du orain ere. Gaur egun nazio-arazoa da klase-borrokaren funtsa eta motorra, bakarrik independentziak, sozialismoak, batzeak eta berreuskalduntzeak bermatzen bait dute gure iraute nazionala.

3.3. Sindikalismo erreformistaren helburuak.

Perspektiba ekonomikoak, aurreko erreflexioak eta «europar» eraginak datozen urteetarako sindikalismo erreformistaren pauso batzu definituz doaz. Hasera batetan, bere errentagarritasuna afiliazio eta ordezkariak sindikal mailan bildu nahi duten «protagonismo» bat berreskuratzea lortu dute —estatal mailan CCOO-UGT—. Euskadi mailan kasua oso desberdina da, «korriente»

orokorrek eragiten badigute ere lehen aipatutako faktore orokor berdinek ELMrekiko duten eraginaren aurrean. Ez dago «marko» propiorik sindikalismo erreformistaren protagonismo horretarako eta Madrilen duten aktibitatearen «dibidenduak» ahulduak iristen dira ordezkariak eta benetako eraginean desberdindutako mapa sindikal bat duen ELM batetara.

Hala ere, sindikalismoaren proiektiorako nahi batzu nabarmentzen hasi gara, Euskadin izango duen eragina ENAMen aurrerakada politiko orokorraren oso arauerakoa izango delarik. Eta LABen ekintza, hau da, Estaturako baliogarri diren zenbait inertzia, Euskadin erantzunak izan behar dute indar politiko eta sindika desberdinen koerlazio batetan oinarrituz eta, noski, euskal instituzioengan egongo lireratekean AEN baten lorpenean oinarrituz. Erreflexio determinante honez gain, zenbait joera aipatu sindikalismo erreformistaren bidean:

—Langileen ordezkariaren istuzionalizazio jarraituz, erabaki markoak urrunduz, langileriaren protagonismo zuzena gutxituz eta lan harremanen burokratizazioa bultzatuz. Enpresa Komiteak, Negoziazio Kolektiboak bere alor guztietan. izango da «tuerka buelta» berri honen helburu aipatutako burokratizazio bidean.

—«Dekretuz» afiliazio masibo bat zabaldu istuzionalizazio horrekin paraleloki, nolabaiteko «multiuso» sozial bilakatutako sindikalismo baten «eskaintza» bikainak salduz: lan arazoak, erreklamazioak, lanbide heziketa, aseguru pertsonalak, errenta aitortpenak, ibilaldiak, pentsio osagarriak,...; hau da, Estatuaren eskaintza sozialaren joera atzerakoi batek, oinarri finantziatzailetzat aurrekontu publikoak dituen (horra hor Seguritate Sozialaren bilakabidea eta aseguro, etxebizitza,... negozioetan sartzeko

CCOO-UGTren jarrera), ondoriotzat du sindikatu horiek ekintza politikorako «enpresa pribatu» «berbilakatuko» lirartekeen formulen bidez Estatuaren suzedaneo modura sindikatuen papera, pasibaz, BULTZATZEA.

—Afiliazio-ordezkaritza horrekin lotuta al daketa bat emango litzateke langile mailako hauteskunde plebiszitu eta sistemak ezarritako kanonetan ekintza sozio-ekonomikorako marko guztietan «gehiengo» diren sindikatuen sartze «natural» baten artean; hau da, ordezkaritza sindikalismo erreformistaren joko arau eta heziketa negatibo baten funtzioan (sistema kapitalistaren erabateko onarpena eta beraren makilatzaile «roll» hutsa).

—Transformazio, Klase konfrontazio,... konzeptuak baztertzea kapitalismoaren eta botere ekonomikoaren «batalla» desberdinen bilakabideari eragiten dioten konbultsio ekonomiko ziklikoei lotutako «ongizate egoera» baten bilakabidearen zuzentzaile huts izatera pasatzeko. Erreformismo sindikalaren «ziklo» edo iraganbidea bukatuko litzateke klase erakundeetara pasatzeko,... «demokrazia» konzeptu zikindu eta usteletan gordetako sistema kapitalista baten »ginda gorri» izatera.

Joera hauek ekonomia izkutan eta kili-kolozko lanetan diharduten gero eta sektore haundiagoen (gazteria, emakumeak, batez ere) lan baldintza eta bizimoduei kasu ez egitean ere isladatzen dira, langile «pribilegiatu»en defentsa korporatibista bere gain hartzeko joera dutelarik; Patronalaren eraso ekologikoen (Autobia,...) aurrean axolagabekeria erakutsiz, ez badiote laguntzariki ematen, noski; emakumearen eskubi-deak, (ama den aldetik, erasogai den aldetik) erabat baztertuz; estrategia desnazionalizatzaileari, marko eta dinamika zentralista eta uniformatzaileen defentsan ari denari la-

guntza emanaz.

Hau da, gure nortasun eta Suboranotasun Nazionalan zimenduetatik gizartearen aldaketa radikalerako LAB bezalako aukerentzat garrantzi handiko «ofentsiba» politiko-sindikal baten aurrean aurkitzen gara. Beraz, ezin ditugu joera hauek minimizatu eta sindikatuaren AHALEGINAK alderantzizko bidean zentratu behar du, interbentzio sindikal «fosku», zorrotz eta beti era langileen protagonismo handienarekiko beti ere begiruneduna eta esportzailea bultzatuz.

3.4. Erreformismo sindikala.

3.4.1. CCOO - UGT.

Euskal Herrian, sindikalismo «estatalak», CCOO-UGT ren ordezkaritza monopolioaren mende dagoenak, jauste-joera mantentzen du pisu eta ergin sindikalei dogokienez; osagai «antieuskaldun»a —kontuan hartzekoak diren desberdintasunez— nagusi da beren interbentzioan eta ezkerreko izaera barreiatzen da Estatuan baino indar haundiagoz, Euskadi—Estatuaren arteko gatazka politikoak duen eragin zuzen dela kausa.

Euskadirako CCOO UGT «batasun sindikal» expektatibek posibilitate eta zentzu gehiago izango lukete PSOE izateagatik proiektu horren alimentatzaile-errentabilizatzaile funtsezko eta determinatzaile. IUren ahultasun politikoa, ELMaren baitan PP-CDSren euskarri hutsak adierazten dute Euskadi marko «interesatu» (marko «pilotu») eta abentajatu izan litekeela, baztar ezinezkoa delarik «batasun sindikal» horren aurrerakada azkarrak sindikalismoarekiko konfrontazio instrumentu modura. CCOOren sektore karrilistaren —Gipuzkoan eta Bizkaiako sektoretan eragin handia duena— PSOEren base botuemaileak «jasotzeko» bere nahian LMan EEren estratejia «desaktibatzearekin» batera.

Funtsezko elementuak EE izena du eta CCOO-UGT «Batasun Sindikal»erako joera posible horrekiko bere ekintza posiblea. Aurrean ezinezkoa da politikaren prestidijitadore hauen «irteera» aurreikustea, hasera batetan badirudi ere ere jarrera EZ LITZATEKELA BATERE ALDEKO IZANGO «batasun» prozesu horrekiko, eragingo lieken protagonismo eta eragin galeran nabarrituko litzateken eragin zuzena dela eta. Gaur egun oso «eroso» daude CCOOn, sindikatuaren proiektioa zuzenduz edota kontrolatuz, Vascongadetan behintzat.

Azkenik esan hauteskunde sindikalak beste atzerakada txiki bat izan behar dutela Euskadin CCOO-UGTrentzat, EE, administrazio bidean batez ere, CCOOn leuntzen sailatuko bada ere sektore industrialeko desgaste edo «galerak».

Ikuspegi orokor honetatik ezinbestekoa dugu modu egokiago batez, CCOO-UGTren gizarte-osagaiari dogokionez, desberdintasun mailak kokatzea Hego Euskal Herriko aldeetan.

CCOOO.- Sindikatu honen giza-osagaiak, nahiz eta gero eta jarrera antieuskaldun haundiagoez kutsatuta egon, edo hobeki erranda ENAMaren kontrako jarrerez kutsatuta egon (izaera antieuskalduna geratua dago UGTn), baditu bere baitan klase-kontzientzia duten langileen sektoreak, LABen interbenzio-dinamikan baloratu beharrekoak. Ezkeraaldea, Araba eta Nafarroa dira gure garrantzizkoen funtsezko adibideak, bertan LABek bere klase-mezuz, bere ekintza sindikal irmo eta koerenteaz eragin behar duelarik. Bertzalde, Gipuzkoan eta Bizkaiko zonalde zabaletan, ordea, CCOO – EE, Carrillisten eragina dela eta – UGTren lehiakide dugu ENAM ren kontrako jarrera ia ia «biszerala» ezaugarri duten sektoreetan. «Desberdintasun»honen faktore na-

gusia, bertze konnotazio soziologikorik alde batera utzita, zenbait sektorek mantentzen duten lotura politikoa dugu: PSOE ala IU.

UGT.- Sindikatu honen bilakatzea euskaldunen aurkako diskutso borrokalaria eta biszerala sustatzearekin batera joaten da, zeina, eskuarki, ENAM ari kontrajartzeko erabiltzen bait du. Aipagarriak dira zuzperetzeko saio artifizialak (kontratazio-azpilerial INEMen bidez, alkatetzen bidez,...) metoso «zikinen» bitartez egiten dituzten arren. Honela zenbait gizarte mailatan (etorkinak, oro har) «baliagarra» agertu nahi du. Hau da, neurri haundi batean, bere iharudera eta jarrera sindikaletik at dauden bultzadei esker bizi da, interbenzio eta mobilizazio gaitasunik gabeko multzo agertzen delarik.

Bere partaideen batzbesteko adina (CCOOn eta ELAn ere, gutxiago bada ere) altua da eta bere proiektio «naturala» beheiti doa, joera hau oxigenaziobide «instiutzioanl»ei esker leuntzen den arren.

3.4.2. ELA.

ELAren baitan eman diren aldaketak isalda garbia izan dute Kongresuari emandako izpiritu eta proiektioan. Euskadiko bilakabide politikoa, ENAM eta LABen indarra, ELAK jasandako estankamendu funtzionala, «gestoria» moduko ekintza Sindikal batekin (beraien ponentzietan onartu dutena), gaur egungo konfrontazio sindikalak exijitzen duen izaera dinamikoagoarekin bat ez datorrena, Kongresu horren zentro subjektibo eta objektiboan egon dira.

«Sindikatu abertzale» modura agertuz ELAK lortu nahi duen proiektio monopolioak ahalegin garrantzitsu bat adierazten du LABen aurrerakada geldiarazteko eta, baita ere, gure posizioetan lehiazteko ere. ELAren bidean ezohizko diren zenbait «politizazio» seinuak (Laudioko kasua PSOE eta beste par-

tiduen aldetik HBrekiko eraso politikoa salatuz), eskualde edo herri bakoitzaren errealitatearen arauerakoa eta desberdina izango den taktika bai zertifikatzen dute.

Hauteskunde Sindikal hauetan ordezkari-tza mailari dagokion beste «salto» bat ematen duen LAB batek garbi baieztatuko luke LAB-ELA direla Euskadiko fase politiko berriarekin irekiko liratekeen politika estratejiko desberdinetarako garrantzi handiko istruentu modura bi sindikatuak agertzea suposatuko luke.

Ikusten dugu, bada, ELA urduri eta euskal mapa sindikalean aurrera egiteko nahian dagoela. CCOO-UGT edo sektore «independiente» norietatik aurre egiteak bidezko dirudi, baina etorkizuneko «batasun sindikal» hipotesia negabitoki eragiten dion arazo gehitu bat da eta, bestalde, ohartzen da LAB bere ordezkartzan zenbait puntu aurrera egiteko baldintzatan dagoela.

3.5. LABen finkaketa.

3.5.1. Hauteskunde bilakatzea.

Datu-iturri desberdinak, ofizialak, ez ofizialak erabiliko ditugu. Beraz, ez dira iturri berberak, homogeneizatutako datuak izanen; ezta nahi genukeen adina fidagarriak (bakarrik zenbatze «ofizial»aren denboraldia- ren datuak sartzen diren ala ez...). Areago, ez dira behar ditugun datu guztiak agertzen (negoziazio-makoaren arabera, eskualdez eskualde, herriz herri...) Alabaina, azken hamar urteotan, Erreforma Politikoak ezarritako ordezkatzeko organoetan (langilegoaren ordezkariak) gure presentzia nola bilakatu den jakiteko gutxi goiti beheitiko azalpena ematen digute.

(*) Zeinuarekin seinalatutako datuak iturri ofizialei dagozkie (autonomi-gobernuak, IMAC...) eta seinalatu gabeak gure barneko iturriei dagozkie (dokumentak, argitalpenak...)

HEGOALDE OSOTARA	ORDEZKARIAK	ORDEZKARIEN %
1980	790	4,58
1982	926	5,73
1986	1.903	10,60
VASCONGADAS	ORDEZKARIAK	ORDEZKARIEN %
1980	703(*)	4.70
1982	851(*)	5,86
1986	1.639(*)	10,77
ARABA	ORDEZKARIAK	ORDEZKARIEN %
1980	43	2,15
1982	41(*)	2,12
1986	185(*)	7,50

BIZKAIA	ORDEZKARIAK	ORDEZKARIEN %
1980	384	4,83
1982	453	5,91
1986	684	8,80

GIPUZCOA	ORDEZKARIAK	ORDEZKARIEN %
1980	276	5,49
1982	390(*)	4,54
1986	778	15,00

NAFARROA	ORDEZKARIAK	ORDEZKARIEN %
1980	87	3,83
1982	76	4,54
1986	256	10,00

3.5.2. Gaur egungo egoera.

86ko azken hauteskunderen ondoren, beste barne dokumentu batzutan isladatutako faktore batzuen ondorioz emaitza desberdinak izan dituen indartze lan bat egin du sindikatuak. Egia da hobekuntzak eman direla esturturen finkaketan, heziketa politiko-sindikalean, interbentzio kualifikazioan,..., baina baita ere garbi dago bilakabide horretan desoreka garrantzitsuak egon direla eta, baita ere, aurrerakada hauen erritmoa geldia izan dela ENAM-en beharrekiko eta sistema eta erreformismo sindikalaren aldetik ELMarengan egiten den «presio»rekiko.

Izaera orokorki —erlatibizatuz noski— autokritika duen analisi objetibo honetatik, baita ere egia da LAB finkatu egin dela sindikatu nazional klaseko modura ELMan leku eta proiektio argi batekin, ENAM osoaren erreferentzia puntu erantzunezin delarik, gaur egun honek LMan duen lekua betetzera iristen ez bagara ere (hurrengo hauteskunderen hauetan lortu behar den helburua).

Gaur LAB instrumentu bizi eta onartua da ENAM baitan LMan duen interbentzioa dela

eta, erabaki edota orientabideak kontraste aberasgarri gehiagotara lotuak egoteko beti ere onak diren kritika edo sensibilitate desberdinak badaude ere. Zentzu honetan, 10-en kointura analisiaren bidean, sindikatuak gehiago ireki behar du bere interbentzio «besoetan», aurrez NUKLEO ESTRUKTURALA indartu ondoren. Hau da, ez du kontraesanik eduki behar KAS Blokearekin dugun partehartze eta inplikazioarekin, LURRALDE TASUNEAN EUTSITAKO GORPUTZ ESTRUKTURAL FINKO ETA FUNTSEZKO baten bidez («kuadro» sindikatua), Sindikatuen zabaltze bilakabide batekin, bertan parte hartu ahal izango dutelarik KASekin sintonizatu gabe, sindikatuak adierazten dituen ordezkartza eta enfoke orokorraren pean ELMaren baitan lan egin dezaketen sektoreak.

Aukera politikoak ENAMen inguruan ditzuten militanteak edo «independentiak», LAB-en Enpresa Komiteko delegatu izan daitezke, sail sindikaletan parte hartu,... eta sindikatuen disziplina politiko eta sindikal orokorra asumitu, garbi utziz EZINGO DUTELA EZ EGON EZ PARTE HARTU ESTRUKTURA ez eta «joera organizatu» bat ezarri —kasua gertatuko balitz— erakunde zehatz bateta-

ko partaide izateagaitik eta marko horietan aztertu LAB eta 10-en ekintza eta interbenzio arazo guztia.

Erreflexio honek «hautsi» egiten du erakundea ulertzeko zenbait kontzepzio purista eta lineal eta benetan barneratzen du LABek kuadro eta masa erakunde modura duen karakterizaio hori, bidea irekitzen delarik euskal langileriaren interes objektibo erantzuteko ELMan FINKATU BEHARREKO ERREFERENTZIA PUNTU ERREAL BAKARRA LABen ikusten dutenei —beren proiektuen porrota dela eta—. Ez dugu «beldurrik» eduki behar —grafikoki tipifikatzearen— BENETAN ESTRUKTURAK (350-400) INDARREZ finkatzen badira politiko eta sindikalak. Alderantziz, lagun diezaguke, ez bakarrik gehikuntza kuantitatiboan, baizik eta baita ere ENAM osoarekiko proiektio positiboan.

Gure «ezkerretara» eta LABekin konpetentzia antzu bat mantendu duten eta mantentzen duten langile sektore, militanteak,... daude, protagonismo, itxiera,... etab. en ondorioz »batallita« artifizialetera iritxi ere egin delarik; behar bada, orain da garaia argitasunez eta INOLAKO KONFLUENTZIA PROZESU ARRARORIK GABE (erabat BAZTARTUA gratzen da) benetako irekitze itxura bat eskaintzeko, sektore hauek LABen baitan lagundu dezaten Sindikatu Nazional Klaseko bat eratzen.

Erreflexio hau sakondu egin beharko da —bere bilakabidea behar bezala dosifikatuz—, Kongresua funtsezko erreferentzia puntu delarik bide honen arazo sakonak eta proiektioak zehazteko. Hala ere, ez litzateke txarra izango oraintxetik hastea harremanak epeltzen, ekintza bateraturako markoak bilatzen,... beti BERE INTERBENTZIO EDO LEHENTASUN BIDEAN LAB EZ DISOLBATZEKO EDO HIPOTEKATZEKO PLANTEAMENDU BATEZ.

Komunikazio «hesi»ak ezartzeak ez dio mesederik egiten gure estratejiari, laguntza puntual eta elkarraldaketatarako ere erreze-lorik eduki beharko ez dugularik, berriz diogu. LAB HELDUTASUN, INDAR ETA FINKAKETAN baldintzatan dago orientazio honi aurre egiteko «oxijenoa eman», «mesede egiten die»,... sindromerik gabe.

Azken batetan, sindikatuak aurrera doan esparru sindikal bat du, hauteskunde haue-tan beste salto bat ematearen aldeko baldintzekin. Herrialde, eskualde eta herri esturkturen finkatze handiagodun eta kuadroen HEZIKETA POLITIKO-SINDIKALDUN ERAKUNDEA dira, hauteskunde sindikalen pres-taketarekin batera, 90 urte honetarako gure BARNE aktibitatearen ARDATZAK. Delegatu berriak hauteskunderen ondoren— egokitu egin behar ditugu ordezkari-tza kapital hori LMrantz efektibitate eta dinamismoz «mugitzeko» esturktura bizkor, konpakto eta kapazitatu batzutan. KANPO mailan, LMa-rekiko gure interbenzioan, LABek 90eko Ba-tasun Nazionaleko ondorioak sakontzen eta aurrera eramaten jarraitu behar du, gaur egungo mezu edo diskurtsoaren defizitari aurre eginez.

Hauteskunde sindikalek gure interben-tziorako instrumentu eta markoak ere ematen dizkigute: negoziazio kolektiboa, ordu sindikalak, dirulaguntzak, organo istituzio-naletarako sarrera,... Hauek gabe gure era-gina beste dimentsio eta baldintza batzutan emango litzateke, ENAMek eta prozesuak berak eskatzen digunarekiko langileriaren-ganako gure eragin kapazitatearen marjina-litate nabari batez.

Optimismo kontrolatua, ahaleginak gehiagotzea eta formazioa funsezkoak dira ELMaren aurrerakadarako hauteskunde sin-dikal hauetan bere «lizantziatura» eta 91ko Kongresuan bere «doktoratua» duen sindi-

katu betentzat.

3.6. CUIS, STEE-EILAS, «IZQUIERDA SINDICAL DE COO», CGT...

Kontutan izateko ordezkari bat mantendu arren, ELMan ekitearen konplexutasunak, barne koordinazio edo kontrasterako lurralde esktruktura minimo batzu ez edukitzeak, LABekin mantendu duten esparru kompetentzia lotsagarrian beren «printzipioen» koherentziaren protagonismorako bultzatzen zituzten borroka «numantizatuen» piskanakako desagerketak (taktika sindikal mailan LAB-ekin kontraesan gogorrekin ere),... bere eragina fabrika edo sektore zehatzetara mugatu du, argi geratuz ELMaren baitan erakunde sindikal modura proiektio minimoki «homojeneo» batetarako posibilitateak urriak direla; STEE-EILAS bakarrik agertzen da nolabaiteko proiektioz mantentzeko nukleo organizatu, erresistente eta «baliogarri» modura (EMK, LKI, ...ren interes fokalistetarako). Gainontzekoa hor dabil «iparririk gabe» eta proiekturik gabe, berriz diogu, minimoki solido edo sinesgarri denik.

Bere aurrerakada sektore bakarra LAB-en lekua bera da, «erreformista», «biguin», ...tzat desprestijiatuz, baina propaganda hori antzua da eta «egun batetarako» edo gatazka zehatz batetarako balio dezake, baina LMan ekiteak ESTRUKTURA EGONKORRAK, HELDUAK, KAPAZITATUAK ETA LANGILE MUGIMENDUA HORRETAN ERAGIN JARRAITUA DUTENAK behar ditu.

Bestalde, egitura hauek sortu eta garatzea erdiesteak aurretik, oinarrizko baldintza gisa, eskatzen du estrategia koerente bat izatea, helburu zehatz eta mugiezin batetara bideratua dagoena eta hauxe da, hain zuzen ere, ENAMaren beraren estrategia. Estrategia hau izan ezean, edozein mugimendu sindikal edota politiko desorientazio bidean li-

tzateke, gero eta ahulago, borroka amankomunera ekarri eta sartu nahi ditugun «ezkerre»ko korrente sindikal horien bilakatzeko historikoak argi erakutsi digunez.

Gaur egungo proiektioa ezezkorra da LAB-entzat eta bere aurrerakada kualitatiborako ELMko LANERAKO MARKO ORGANIZATIBO MODURA LABen ZENTRATU behar duten «ezker sindikal» baten osotasunerako. «Ezkerreko apostolu» eta LABen ikuskatzaile modura mantentzeak, batere mesederik egiten ez dien gutxitze jarraitu batetara eramaten ditu EMK, LKI, ...tik egin beharko liratekeen lan politiko teorekiko (beren kontsiderazioen arauera), LMan duten paperan alderdi horiek duten karakterizazioaren arauera. Oinarrizko kontraesan honek ere egunen batetan «lehertu» egin behar du sektore hauen baitan.

4. LANGILEEN ORDEZKAPENERAKO INSTRUMENTUEN BALANTZEA.

Langileen gizarte-kontzientziaren gain iharduera erreformistak eta sistemak, orobat langile klaseari balore debaluakorrak zaizkionak txertatzeak, ekarri duten ELMren bilakaerak eragin zuzena dauka fabrika edo lantoki barneko langileen ordezkapenerako eta interbentzioarako organoetan.

Enpresa Komiteak, langile-batzarreak,... sindikalgintza erreformistaren eraginez lanharremanen ikusmoldean ematen ari den joera burokratizatzailearen ondorioak noizten ari dira (goitik eta klase-konfrontazioa zuzenki ematen den esparrutik urrundurik jokatuz).

Ente negoziatzaileak izateko, ordezkapen-organoko unitarioak baztertuz, sekzio sindikalak indartzea; kontrasterik txikiena eta langileen beraien jarraipen eraginkorra alde batera utziz, horrela bai konfrontazioa bai

errebindikazioak edukinez hustutzen direlarik, patronal-sindikatuaren arteko akordioek langile-kolektiboaren gain duten eragin txantaiaria; Administrazio alorrean, negoziazioa «mahai sindikalean» nahiz «aldebiko mahaietan» antolatuz, «Personal Junten» eginkizuna arras eraistea... Guzti hau izan da nola Komiteetara hala Batzarretara halako ahultasun gaitza ekarri duena.

Baliteke LAB ere batzuetan inertzia horretan erori izana, geure dinamika politiko-sindikalean besteengandik bakartu garelako aipatutako marko unitarioak behar bezala ez indartzeagatik. LABek jarraitu behar du Enpresa Komiteen eta langile batzarreen izangaitasuna behartuz bien elkarren arteko eragin hertsia ezarriz, horiek abiapuntutako harturik langileen kolektiboari buruzko proiektio batekin intziditu dezagun, beti ere organizazio gisa dugun geure lanean HIPO-TEKATUAK gertatu gabe.

Sindikalgintza erreformistak ihes egiten tu marko hauetatik, beren taktikarako kontra-koak eta beren interbentzioetarako lardaska edota kontraesanak agirian jartzeko leku aproposak direlako. LABek, horregatik, etengabe ahalegindu behar du marko horiek edukinez aberasten erreformisten asmoen kontrako helburua izanik. Sekzio sindikala, lantoki bakoitzeko langile afiliatuak taldetzen dituen organigraman mailarik behekoeneko egituratzat hartu behar da (negoziatio-botererik gabe, dagokion egiturak kontsideratutako egoera «bereizietan» ezik), eta, hau gogoan izanik, oreka egokia lortu behar sekzio sindikalaren garapenaren eta, LABeko militantegoak bere gain hartu beharreko burruka ideologiko espezifikokoaren zati bezala, Enpresa Komite zein batzarreetan izanen den eskuhartze pedagogikoaren artean.

LABek ez du beste irtenbiderik eta garran-

tzi haundikoa da orientazio hau zuzen betetzen den ala ez hausnartzea, ez dezagun geuk sindikatu erreformistek bulkatzen duten Komite eta Batzarreen eraispena erraago bihurtu.

Honela, bada, baldin lan honen helburua arazo hauek (sakontze haundiagoa eskatu baino lukete) aztertzea ez bada ere, balantze (negatiboa) eta orientazio moduan behinpein, argi gera bedi Komiteak eta Batzarreak sindikatuak ahalik eta indarririk gehienez defendatu beharreko markoak direla.

5. 1990: HAUTESKUNDE SINDIKALAK.

5.1. Garrantzi politikoaz.

Testuinguru politikoaren analisisian lehen isladatuak izan diren gogoetek batetik, eta Euskal Langile Mugimenduaren egoerak berak bestetik, argi baino argiago adierazten dute nolako garrantzia daukaten hauteskunde sindikal hauek bai LABentzat bai ENAM osoarentzat. Bai geure helburu taktikoen lorpena areagotu dezagun bai xede estrategikoetarako bidean, honetan ELM dinamizatzailerik ordeztuzina izanen baita, oinarriak ezarri ditzagun, hauteskunde sindikal hauek sindikatuak eta ENAMek jaso dugun desafioari indarrez eta duen zentzuaz ongi jabeturik erantzun beharreko azterketa izanen zaizkigu. Gai honetan egiazta daitekeena da orain artio ENAMen joera, militante multzo osoa erne jartzeko gai diren beste hauteskunde politikoekin konparatuz, hauteskunde sindikalei hainbesteko baliorik ez ematea dela.

LABen lana da jarrera hau gaindi eraztea, horretarako ENAM osoan zabaldu behar duen ELMan gure intzidentzia nahiz kuantitatiboki garatzeak gure prozesuan daukan garrantzi taktiko-estrategikoa. Inoiz ez da — beste oinarri juridiko-politikoetatik

abiaturik — gizarte aldaketa prozesurik ematen langile klasea eta herritar geruzak baztertuz edo beraiekin sintonizatu gabe. Berbat, Euskadiko gehiengo abertzale eta langilea eta langilearekin «elakarlotzeko», ENAMi premiazkoa zaio organizazio sindikal sendoa eta egiazko aldaketa-prozesua bulkatzeko gai izanen dena: L.A.B.

Beraz, desio ditugun frutuak jaso ditzagun, ORAINTXE BERTAN proiektatu behar dugun lana hauxe da, hots, hauteskunde-prozesua bere gain harrerazi lehendabizi LABeko militantegoari, gero Blokeko gainerako lagunei eta ENAM osoari (era eta metodoak zehaztu beharrean gaudelarik). LAB, KAS eta gainerako ENAMen burutu beharreko jabe erazte honetan oinarrituko dira sindikatuak lor ditzakeen garai-penetatik asko.

5.2. Helburuak:

5.2.1. Geure presentzia sendotu.

Patronalaren erasokortasunak, elkarri aurka egiteko moduak, gure mezu-metodoen erradikaltasunak, sistemaren irenspen/bereganatze boterak, erreformismo sindikalaren dinamika frustragarriak... hauek denek bereziki zaila egiten diote LABeko militantegoari behar bezain erne aritzea.

Esan behar duguna da burruka honek mezezi duela, nola indibidualki hala kolektiboki, lortu ere (eta gurekin batera gogoan ditudu honetan lehendik aritu direnak) lortu bait dugu geure organizazio hau eraztea eta sendotzea, gaur Langile Mugimenduko militante iraultzaileen elkar-gune bihurtu delako eta euskal gizartearen aldaketa prozesuan intzidentzia argia duelako.

Saiatu behar dugu komiteetako partaide eta delegatuak izandakoen neke logikoak ez dezan beren militantzia hautsi eta geure

presentzia are sendagoa eta zabalagoa egin dezagun orain ordezkariarik daukagun lekuetan.

Marko hauetan, organizazioari ezinbestekoa zaio lantokietako afiliatuen baztarrearekin harremanetan jartzea iragan den aginte-aldiaren balantzea egiteko, lortzeko dauden errebindikazioak eta gerorako interbentzio programa zehatz baten elaborazioa, baita organizazio-arazoak ere, berrikusteko. Guzti hau zirikagarria izanen da eta barne indartzea ekar dezake bai hauteskunde sindikaletarako bai lantokiz-lantoki afiliatuak ugaritzeko (gogoan izan gure afiliatuenak baino askoz botu gehiago jasotzen ditugula).

5.2.2. Gure ordezkaritza zabaldu.

a) GLOBALKI

Gure hazitzeko aukera bai lurraldez bai sektoreka, nahiz eta desberdina izan, argi eta garbi litekeena da nola afiliatze hala ordezkartze alorretan.

Ez dugu oraino ENAM beraren mugetara iristerik lortu baina berari gainezka egin ahal izateko moduko baldintzetan gaude. Horretarako, egoera ezinobean jartzen gaituzte eremu sindikalean bereziki ematen dugun erantzunak eta gure mezu zein berbaldi abertzalea, gurea bezalako ingurunean, sakontzeak.

Joan diren lau urteotan (1986ko hauteskunde sindikaletatik hona) lortu dugun barne sendotasuna, desafio berri honetan aurkezteko daukagun ahalmen organizatiboaren garantia badugula esateko motibua da. Beste faktore positibo bat lantegietan eta publikoki egin dugun gure iharduera errebindikatzailaren moldaketa-lana da, gaur egun eskatzen zaigun bezain eraginkor garatu ez badugu ere.

1.- Afiliatuak bai baina ordezkariak gabeko hesparruak.

Organizazio bezala erantzunkizun handia daukagu LABen afiliatzea erabaki duten pertsonak militantziara progresiboki erakartzeko lanean. Hauteskunderen aitzinaldi honetan egiaztatu ahal izanen dugu organizazioa zenbat hurbildu zaien pertsona horiei, nola identifikatzen diren. Eta aitzinaldi honetan, baita ere, ahaleginak egin beharko ditugu harreman horiei esker kandidaturak egin daitezen.

Garrantzi haundikoa da, halaber, 4.3.1. atalean adierazten diren eginkizunei ekiten hastea.

2.- Afiliaziorik gabeko hesparruak.

Zaila da nonahi delarik ere lantegietan ENAM-en jarraitzaile eta inguruko pertsonarik ez izatea. «Maletinarekin doazen sindikalista» horietakoak izan gabe eta kolektibo, organismo nahiz organizazioetan desiragarriak ez zaizkigun kontraesanak sartu gabe, saiatu behar dugu seriooki pertsona horiek ezagutzen eta beroriekin harremanetan jartzen.

Ezagutzera eman eta presente egotea ahalbidetzeko modua (biztanle anitzeko hiriguneetan batipat), hitzaldi irekiak, besterrebindikazio ekitaldiak eta abar dira.

b) HEDAPEN HESPARRU DEFINITUAK: zentrala eta sektoreka.

a) atalean adierazitako hedapen helburuen ikuspegi globaletik, garrantzia dauka inplantazioaren halako garapenerako gure gain hartu dugun zenbait lan-desafio, geure buruan konkrezio haundiagoaz markatzea.

b. 1.- Lurraldeka.

Nahiz eta herrialde bakoitzeko hauteskunderen sindikaletarako batzordeak sakonago landu LABek ordezkartzaren zabalkunderako

lan berezia derrigorez bultzatu behar duen eskualde eta herrietan, egiazta daiteke hainbat lekutan desoreka nabaria ematen dela ENAMek duen ahalmenaren eta sindikatuak duen presentzia edota ordezkartza esakaren artean. Bestalde, sindikatu abertzale, sozio-politiko batek... nahitaez Euskadiko zoko-bazter guzietara iritsi behar du, LAB «desagerturik» daudeneko zonalde «deserturik» izaten utzi gabe.

Hildo honetan, hauteskunde sindikal hauek LABen aurrerapen nabaria erakutsi behar dute leku hauetan:

GIPUZKOA: Kosta-Urola eskualdean (Azpeitian, Azkoitia, Zestoa, Zumaia eta abar) eta oraingoz «goi» jo gabe gauden herrietan, hala nola Irun, Orereta, Donostia eta Andoainen.

BIZKAIA: Lea-Artibai, Enkarterri eta Durango eskualdeetan ordezkartza zabaldu behar da. Era berean Ezker-Aldea, Bilbo eta Eskuin—aldean lan berezia egin behar da zabaltzeko ematen diguten auke-ragatik.

ARABA: Errioxa, Agurain eta batez ere gasteiz hiriburuan, duen garrantziagatik eta herrialdeko ekonomian nahiz langile potentzialean daukan intzidentziagatik.

NAFARROA: Tuteria, Tafalla, Agoitz, Zangotza eta Iruñeko industri-inguruan bertan.

b. 2. Sektoreka.

Zenbait eskualdeetan bertako industrietan berezitasunagatik lurraldez hedatzeak sektore berrietan agertzea edota desagertzea ekar dezakeela alde batera utziz, sindikatuak gogor ahalegindu behar du bai garrantzi kuantitatiboagatik bai garrantzi kualitatiboagatik produkzio-area zehatzetan garapen hesparruak hautemateko (intzidentzia izan konfrontazio ekonomiko-

sindikalarik nabariko hesparruetan). Ikuspegi honetatik, LAB-ek hedatu behar du plangintza «berezia» eginez honelako sektoreetan:

ADMINISTRAZIO LOKAL-PUBLIKOAN.

LAB praktikan presenta egon daiteke Euskadiko udalerri gehienetan (honetan garrantzia dauka HBko bertako komite lokalaren barne laguntzaz eta lankidetzak), horretara sektore honetan dugun intzidentzia oparo ugartu daitekeela. Administrazio sektoreak konfrontazio politiko eta sindikalean duen inportantzia sakon baloratu beharreko faktorea da datozkigun hauteskundeetan, ENMAen giltza eta itzal politikoa ongi usatu ezker hedapen hesparu estimagarria eskaintzen bait zaigu.

ARRANTZALEAK.

Sektore «berria» dugu hau, pixkanaka ordezkartza eta intzidentzia irabazten joan behar duguna. Faktore kuantitatiboez gainera, bai sindikatuarentzat bai ENAMentzat epe labur eta ertainean proiektio arras inportantea izan dezakeen sektore baten aurrean gaude, izan ere erakunde desberdinen «presioa» dela eta, kontraesan antzuten erdian aurkitzen bait da. Sektore honetan, baita ere, HBren potentzial politikoaaren ekarpena azken emaitzetarako giltza izanen zaigu.

ERAIKUNTZA.

Sektore hau beti ere LAB sartu ahal izateko zailtasun handiko sektore gisa itxuraturik dago, nahiz eta «hazkunde ekonomikoaren» arioren enpresen gorakada eta langile kopuruaren ugartzea ezagutzen arden. Sektore hone duen gero eta trnszendentzia haundiagoaz bultzatzea behar gaitu bertan presentzia-guneak izan ditzakegun ala ez zorrozki arakatu eta sondeatzera (kontrako faktore negatiboak gorabehera: UGTren fuedoa, sektore ho-

netako langile «tipo» edo eredu...)»

GARRAIOAK

Sektore honek garrantzi handia dauka eta LABek bertan duen ordezkartza zabaldu beharra dauka: Eusko Trenbideak, Renfe, Hiribusak, Hiriartekoak, Pribatuak, Aireportuak, Portuak, Aduanak... nukleo guzti hauean sindikatuko egiturek (herrialde nahiz eskualdeko hauteskunde sindikaletako Batzordea) LABen presentzia eta sendotzearen «bila» joan behar dute. Aldi berean, sindikatuak (hauteskundealditik kanpo) garraiarik «autonomoen» beste elkartearen errealitatean sakondu ahalko luke (hasteko bestelako helbururik gabe), beren arazoak ezagutzuz eta ekonomian duen garrantzia hazitzen doakion langile kolektibo honen barnean nola eta zer planteia dezakegun ikusiz.

KOMUNIKABIDEAK.

Ez dugu berririk erakutsiko komunikadideek Euskadik bizi duen gatazka politikoan duten trnszendentzia azpimarratzean, bai gizartea ideologikoki moldatuz, bai organizazio iraultzaileak pozoinduz, bai... Komunikabide hauean espaziorik nahiz eraginik «irabazteak», berorietan gauzak ezkutatzeko, nahasteko eta abarretarako dire joerak baldintzatu edota frenatu ahal izatea ekar dezake. Jakina, lanbide eskaerak errebindikatuz batera, ENAMekiko gutierrez eska daitekeen tratamendu zuzena eskatuz edota ahal den gehiena baldintzatu behintzat. Nolanahi ere, hauteskundeak joan eta gero, LABen gai honi buruzko jokamolde definituagoa nola izan hausnartu beharko litzateke.

KONTSERBAGINTZA.

Egundaino LABek gutxi aztertu dituen arlo sozio-ekonomikoetan gure iharduera eta

interbentzio sindikala planifikatu eta bultzatu orduan, sektore hau garrantzizkoen artean sartzeak bi arrazoi nagusi ditu. Alde batetik sektore honek Euskal Herrian daukan indar haundiagoa. Nafarroako erdi aldean eta Erriberan kokaturik dago eta ohartzen gara LAB bi alde hauetan sartu eta kokatzeak zer nolako garrantzi politiko-sindikala ekar dezakeen. Bertzetik, kapital multinazionalaren sarrera handia eta geldiezina sektore honetan (nekazal-elikadur sektorean). Multinazionalen asmoak garbi dira: industria hauetaz baliatzea Europan egindako produktuak estatuko merkatuan sartzeko, euskal nekazaritzaren etorkizunaraz gutxi arduratzen direlarik.

ENPRESA TXIKIAK ORO HAR.

Sektoreka zehazki espezifikatu gabe ere, guk uste, sindikatuko egiturek, dituzten hauteskunde sindikaletarako Batzordeez baliatuz, enpresa txikietan izan daiteken presentzia eta intzidentzia PLANGINTZA zorrotz bati ekin behar diotela. Orain artio bigarren mailan utzi dugu —sindikatu barneko balore eskalan-arras garatua eta Industrialde, Poligono eta antzekoetan arras atomizatua dagoen enpresa txikia. ENAMeko sektore estimagarriak dira langile kolektibo hauetan daudenak. Hauetan, «hautaketa» gehiago erabakitzen da honelako edo halako langilearen «burru-kazalatasunagatik», bera den sindikatukoa izateagatik baino. Sektore honetan, orobat, «independiente» kopuru handia eta sindikatu erreformistek egiten dute delegatu bereganatzea gertatzen da, nolabait ere sindikatuaren indar eta intzidentzia gizen dezaketena. Sektore hauxe da aukurarik haundienetakoa ematen duena kuantitatiboki ugaritzeko, nekatu gabe «ibiltzen» baldin badakigu noski.

Gainera bada beste arazo garrantzitsu bat ere. Ez dugu uste izan behar eragin politiko-ekonomikoa enpresa haundiertan bakarrik eman behar denik, hain zuzen ere milaka langile bait dira lan-kolektibo txiki hauetan daudenak eta «berriak izan ez» edota istilu sozial, ekonomikoa eta antzekoetan bazterrean daudenak. LABek horiengana iritsi behar du etengabe bai laguntza mailan bai interbentzio espezifikoak, eta horrez gainera beraien kontzientzia nazionala eta klasekoa sendotzeko behar dituzten elementu ideologikoak ahalbideratuz.

5.3. Kanpainarako estrategia.

5.3.1. Berbaldia - Mezua.

Geure mezua edota berbaldia zentratzeko nolabaiteko «homogeneotasun» globalaz (beti izanen dira tratamendu berezia eskatzen duten errealitate espezifikoak) definitu behar dugu zein sektoreri zuzendu behar gataizkion beraren sindikaturako konfidantza eta laguntza orientatzeko. Hildo honetan, azpimarratu behar da LABek bere proiektzioa honako hauengana bideratuko duela:

- Politikoki ENAMen bidean diren langileak baina beren jarrera apatia sindikala, «independentzia» antzua edo bestelako aukera sindikalekin identifikazio kontraesangarriak dituztenena denean. Hauek hausnar dezaten ahalegintzea, mezu globalaren eta txosten honen bidez, eta berauekin HARREMAN ZUZENA izatea, faktore determinatzaileak dira garatuko dugun berbaldi orokorrekin osatuko dugun lanean.

- ENAMekin identifikazio «ahula» duten langileak, abagadunaren edo ENAMen taktika politikoarekiko talde albokideekin dituzten «lokarrien» baldintzatzaileen arabera fluktuatzen dabiltzanak. LABek «ezker» sek-

tore hauei, klase problematikarekin sentiberak diren hauei, organizazio instrumentu irekia eta langileen errebindikazioekin konprometua eskaini behar die, ELMaren egoera-analisan eta testuingurua politikoa-ren karakterizazioan justifikatuz. LAB langileen arazo zuzenei indar haundiagoz erantzuteko eta interbentzio hori ideologizazio politiko-sozial batekin osatzeko prest dagoen organizazioa dela adieraziz eta demostratuz, eratzen den binomio banaezinak alferrikako deskalfikazioak ekidin ahalko ditu: LAB ez dago langileen arazoen «hondarretan»...

- Erreformismo sindikalaren egintza klandukatzaileari esker erresumindurik dauden langileak, baina gure proiektu globalarekin sintonizatzen ez dutenak (burruka politikoan erabiltzen diren bitartekoak etab.). Langile hauei LABek «non jokatu» eskaini behar die, langile organizazio irmo eta lanerrebindikazio zuzen eta objetiboekin argi konprometua dela BERRETSIZ. «Erreferentzi-poloa» den LAB sektore hauei ikus arazi behar zaie, intoxikazioari, erreformismo sindikalaren jarrerari eta baita (zergatik ez esan) izan ditugun interbentzio-hankasartzeei zor zaien eta gure sindikatuak zenbait sektoretan duen «klitxe» murriztailea galdu eraziz.

Gure berbaldi-mezuaren entzule-hesparru hauetatik eta sakon baloratu eta osatu beharreko proposamen gisa (hauteskunde sindikaletarako Batzordeak, propaganda, militantzia oro har...), aipatu barnesartze eta intzidentzi helburuak jasotzen dituzten goiburu edo lema batzuk planteiatzen ditugu hemen:

«LAB: EUSKAL LANGILEEN ALTERNATIBA ETA ITXAROPENA».

**«AURRERA DOAN HERRIARI
BEHARREZKOA ZAION ORGANIZAZIO
INSTRUMENTUA».**

**«LANGILEOK: PAUSO BAT AURRERA - BAT
EGIZU LAB-ekin».**

**«SENDO ETA ZORROTZ SINDIKALGINTZA
ABERTZALE KLASEKOAN».**

Goiburu hauen asmoa berbaldiaren hari gidari bat eskutan hartzea da, sindikatua-ren proiektzioa oinarritu beharreko lerro nagusiak definituz. Gure mezuan «Negoziazioa», «KAS Alternatiba» edo antzekoak zuzenean aipatzea ez da beharrazkoa, horiek sartuak bait daude identifikazio ezaguri bezala (batzuetan badirudi zenbait hitz agertzen ez bada «arraro» sentitzen garela) guk organizazio sozial-politiko gisa ditugun ezaugarrietan. Orain ELMaren aurrean aurkeztek garaia da, «irudi» langilearekin eta ez KAS nahiz HBko posizio politikoen jarraipen simple edo mimetiko bezala.

LABen berbaldian EUSKARAK, euskal nazioaren faktore determinatzaile gisa eta sindikatu abertzale batendako elementu identifikatzaile gisa, sinbolismorako joera edo «osagarri» soila izatearekin hautsiko duen protagonismo maila hartu behar du. LABek ikasi behar du euskara modu positiboz «arma» bihurtzen, beti ere errealtate espezifikoak baloratzen jakinez (Tutera, Errioxa,...), negatiboki dituzten desorekak direla eta, tratamendu berezia eskatzen bait dute. Kontrara ordea, badira errealtateak non gure berbaldia osoa Euskaraz egin ahal eta behar dugun gehienbatean, «kunplimentuzko» elebitasunetik urrunduz. Hauteskunde kanpaina honek, beraz, LAB-ek EUSKARAREN ALDE BURUTU BEHARREKO BARNE ETA KANPO PRESIOAN txertatu behar du; gainera oso gogoan izateko faktorea da gure interbentzio guzietan, kandidaturetan,...

5.3.2. Hauteskunde - Aitzinkanpaina.

Badira hilabete batzuk aitzinkanpainen sartuak gabiltzala. Sindikatuak ari dira be-

ren interbentzioak egokitzen, jarrera edo berbaldi estetikak egiten, instrumentalizatzen dituzte gatazka sindikalak edo konzertazio bidezko «lorpenak», etab., begia beti beren helburu pozoinduak proiektatzeko aukera eman diezaiekeen hauteskunde errentagarritasunean jarririk.

LAB ez daiteke errealitate honetatik kanpo ibili eta artikulatu behar du nahitaez sindikatu bezala GURE NORTASUNA NABAR-MENDU eta gure gain kutsagarriro indar hartu duten halako irudi esklerotizatzaile eta murriztaileei aurka egiteko aitzinkanpaina. Gure aitzinkanpainak ez du deus ere «salduko», aitzitik, egin behar duena da LAB interbentzio maila ekonomiko-sindikal ugarietan zer den eta zer izan nahi duen indartsu eta argitsu nabarmen erazteko ahalbideak jarri.

Aurkezten dugun planteiamendu mailakatu honako hau da:

a) **NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA.**

LABek ahaleginu behar du Negoziazio Kolektiborako lurralde nahiz sektore-hesparru guzietan gogortasunez interbenitzeko, eta eragin horretarako langileen eskuhartzea, garaizko informazioa eta langila errebindikazioekiko sintoni jarrera. Mugimendu kontsekuentea, beraren «jauzi» kualitatiboa baldintzak aldekoak izan ezkerro, desberdintasunezko arautzat hartutako testimonialismoa zalantzan jartzea (beti ere kasuan kasu baloratu behar), etab. hauek guziek osagarriak izan behar dute jarraipen lan batekin, hau langile artean eta prentsan ere nola gauzatu eta nolako eragin zuzena izanen duen Errebindikazio Ekintza Hesparru bakoitzean artikulatua iza behar duelarik.

Intzidentzia berezia eskatzen dute «berriak» edo presentzia ahulekoak diren sektoreek, LABek haien eguneroko arazoetara

egin behar duen lehen hurbilketarako. Mahai negoziatzailean egon gabe ere, sindikatuek interbenitu behar du langileei zuzendutako jarraipenean, eritzi ematean eta abar, langile kolektibo garrantzitsuei zuzenean interesatzen zaizkien faktoreetatik bakartu gabe.

Lan ildo hau ez da «berezia», hauteskundu hurbiltasunak sortutakoa. Hau da une guztietan aitzina eraman behar dugun tankera eta bidea, hauteskunde sindikaletan eta, oro har, gure eragin-gaitasunean ondorioak ekarriko dituen.

b) **LANGILEAREN ESTATUAREN URTEURRENA.**

Egun interesgarria da lan-harremanak erregulatzen dituzten OINARRI JURIDIKOEI buruzko gogoeta bat pedagogikoki lantzeko, oro har sindikalgintza erreformistaren erantzunkizunak agirian jarri eta, batez ere, ELAren jarrera faltsu edo kontraesankorrean intzidituz. Bere abertzaletasun ozena (azken urteotan garatutako kontrabidearen islada nabaria) eta zentru horretan «lan harremanetarako hesparru autonomoa» lortzeko egiten duen aipamena (berriro Lan Harremanetarako Kontseilua (LHK) aurrera ateratzeko asmoa, PRECOREkin duten esperientzia berria, etab.), kondizionatuak dauzkate beti, zalantzan jarri ordez, medikamentu eta taktika kontraesankorrez «berpizten» saiatzen ari diren hesparru juridiko-politikoarekin. LABek argi eta garbi adierazi behar du zer den L.E., zer den estatu-hobekuntza hauen errealitatea, Hego Euskadiko «lan-harremanetarako hesparru autonomo» egiazko bat egitura propioz blokeatu besterik ez bait du egiten (LURRALDE TASUNA), argi utziz daukagun DEFIZIT POLITIKO ESKUMENEZKO-JURIDIKOA euskal langileak ukitzen dituen legeri-gorputza eraberritzeko ENA berri baten beharra seinalatzean.

d) ALTERNATIBA SOZIAL-EKONOMIKOA.

Lehentasunezko Plataforma Sindikalara-ko egintza erreflexu edo mimetikorik burutu gabe, baizik eta sindikatu bezala duen irudi integrala sustatu nahian, langileen bapateko arazoetarako planteiamenduak ere badituelakoz (fabrika edo lantegi bertakoez gainera) helburu politiko-ekonomiko estruktural batzuekin «komunikatzen» dutenak, LABek bi aspektu horiek pedagogikoki konbinatuko dituen alternatiba eskaini behar du.

Barne heldutasun prozesuari kanpaina gogor bat jarraituko zaio (apirilean), gailurra Maiatzaren Lehena izanik, ENAMek eta berriaz sindikatuko militantegoak hartaz presatu beharko luketena. Kanpaina honekin harremana duten alderdi teknikoak edo iharduera zehatzak, datozen asteotan isla-datu edo planteiatuko dira egituren bidez.

e) IRUDI ETA HEDAPEN KANPAINA.

Maiatzeko bigarren hamabostaldian eta ekaineko lehebizikoan (hauteskunderen aurreratzerik ematen ez bada bederen), sindikatuak ELMari eta oro har ekingo dio. Agian «LANGILEOK: AURRERAPAUZO BAT EGIZU LAB-ekin» goiburua erabiliz, sindikatuak lan zabala burutu behar du fabriketan, herrietan, etab., berriazko beste lan espezifiko batean sakon definitu beharko dena.

Iharduera guzu hauen azkentako (prentsan ahaleginduz, afiliazio-hedapen helburuak geure buruari markatuz) Ekainaren erdialdera, delegatu, afiliatu eta gainerako egiturek eskuhartuz, mitin-jaialdi-bazkari ekitaldi haundi haundi bat izanen litzateke. Ekitaldia zabalik izanen luke prentsak, 90.eko HAUTESKUNDE SINDIKALEI BURUZKO EKITALDI PUBLIKOA IZANEN LITZATEKEELARIK, eta interesgarria litzateke gainera gonbidatu, pertsonaia politiko edo intelektual lagunak bertan izatea, baita

elkartasun-telegramak, etab. ere.

Maiatzaren batetik aitzinera, hauteskunderen sindikaletako Batzordeak, edo erantzulea den beste norbaitek, ekitaldi hau fisikoki prestatzen hasteko erantzunkizuna bere gain hartu beharko luke, Idazkaritza Nazionalak iharduera plangintza oso bat zehaztu beharko lukeelarik.

5.3.3.

Aitzinkanpaina eta kanpinan bertan — militante mailan — «zaindu» egin behar ditugu langile sektore jakin batzuetan sartzeko erak, eskalifikapen simple eta sabelkoiak ekidinez, hauen errentagarritasuna eskasa bait da dauden gizarte-kontzientzi mailak kontuan hartzen baditugu. Honetarako patroio finko batzuk ezarri nahi ez ditugula ere, tratamendu sindikaleko hildoen inguruan zenbait puntu kontsidera dezagun:

—UGT.- Ez du merezi esfortzurik gastatzeak erakunde honekin, dauzkan eraketa eta orientabide teoriko-praktikoarengatik.

—CCOO.- Honen zuzendaritzaren etengabeko uzkeriaren gainera, klase-kontzientzia aski tinko mantentzen duten sindikatu honen sektore batzuetara hurbiltzen jakin behar dugu. LABek, haiengana, gizarte-borrokan bere klase-osagaia adierazi behar du, gizartea benetan bilakatzeko borrokan ari den erakunde baten errealitatea erakutsi behar du (CCOO sitemaren apaintzaile gisa gelditzen den artean), Euskal Herriarendako nazio-askatasuna eskatzen duen bitartean langileriaren interes objektiboetan oso osoan integratzen den sindikatu baten errealitatea, patronal eta administrazioari erantzuteko seriotasuna eta azpiegitura dituen sindikatua dela adieraziz.

Begi bistan da orientabide «eredu» hau ez daitekeela zabal maila nazionalen zeren CCOOren barneko osagai nagusia ENAMA-

ren kontrako jarreretan kokaturik bait dago eta zaila da, fase honetan, LABen ekintza sindikal eta sozioekonomikoaren ildotik joatea.

—ELA: Sindikatu honen gainera jo behar dugu bere praktika sindikalarekiko (burokratizazioa, estatalismoa, apolitikoa langile klasearen desideologizatzailea, etab.) eta epela eta interes ia gorporatibistetara moldaturiko abertzaletasun «sukarrarekiko» ikuspegi kritiko gogor batekin jokatzu.

Ez dugu eztabaidetatik ihes egin behar —kontuz euskararekin—, eta bestalde ongi baino hobeto zaindu behar dugu mezuaren kualifikazioa ELAren «tranpan» erortzeari ekidinez: LABek ez du ikusmolde politikoz baizik funtzionatzen.

—CUI: Beste ataletan garbi gelditu da zein den sindikatuak jarraitu beharreko jokabide orokorra. LAB ez du hauen buruzburuj jokatu behar, jarrera antagonikoak bagenitu bezala ageriko konfrontazioan sarre-raziz. Hori errore haundia litzateke eta beraien mesedekoa gainera. Gure mezuak «irekia» izan behar du eta konbentzi erazi LAB dela ORGANIZAZIO ETA INTERBENTZIO INSTRUMENTU BAKARRA kontzientzi egoeraren berrindartze bati eta benetako ezker eraberritzaile eta iraultzailearen posizioetatik ELMan eragina izateari aurre egin ahal izateko. Sakabanatzea eta globalki indargabeak diren egitura sindikalak artifizialki elikatzea praktikatzat harturik «batasun» edo unitarismoko ikusmoldeak berez ez dira kontraesan ERANTZUNGAITZAK besterik, are gehiago ELMaren egungo egoeran.

—INDEPENDIENTEAK: ELMko ezkerreko zenbait zirkulotan bada sindikalgintza organizatutik kanpo funtzionatzeko joera, (beren ikuspegiaren ariora) lehengo egoera batzuetan «alternatiba» izan zitezkeen ikusmolde «asanbleario» edota «autoorganiza-

tibo»engatik. Ikusmolde «asanblearioengatik» edo «autoorganizaziozaleengatik». Joera hau dela eta, LABek organizazio-instrumentu bat «eskaini» behar du, errespaturik haundiena eta langileen partizipazioan positiboki intziditzeko borondatea erakutsiz, langile klasearen baitan gizarte kontzientzia indartzearren faktore klabe bezala organizazioaren beharra planteiatzeko. Langileek egunero sufritzen dituzten erasoei eta errepresioari sendo eta gogor erantzuteko moduko organizazio-instrumentua. Sektore honetakoak konbentzi erazi behar ditugu egoera honetan izan dezaketen erro-
rerik haundiena (garaturiko traiektoria desberdinetan denok egin ahal izan ditugun errorez gainera) beren errealitate espezifikoa «bakartzea» dela, eta ezin dutela alde batera utzi beraiek izan dezaketen eskuhar-
tzea eta ekarpena ELMari haize «freskoa» eman nahi dion nukleo organizatibo dinamiko eta aktibo honetan: LAB.

5.3.4. LAB eta ENAM.

Aurrez egindako gogoetetan nabarmen utzi dugu nolako garrantzia daukaten hauteskunde sindikal hauek eta zein beharrezkoak den KAS eta HB era eta maila desberdinetan inplika araztea.

- HERRI BATASUNA: Ez dauka publikoki aukera sindikal zehatz baten alde agertu beharrik, ELMari buruz proiektzio «zabala» mantendu behar du etea ez LABen posizio eta indarrak errepresentatzen duenera bakarrik mugatu. Kanpora begira ez agertze honek, ordea, ez du esan nahi LABen aldeko «presio» eta egiazko lana egin behar ez duenik, horretarako definitzeko dauden zenbait mekanismo erabiliz.

a) LABetik zenbait momentutan sortzen diren bide edo kontsiderazio politiko-ekonomikoen alde agertzea: alternatiba sozial-ekonomikoa, maiatzaren lehena, mi-

litanteen egintza, delegatuak eta abar.

b) HBko Komite Lokalek hauteskunde sindikaletan LABen alde jokatu behar dute, baina organizazioaren bidez sindikatuari laguntzeko direktziaz argiak emanaz, beti ere LABeko elkarte lokalak eskatzen duenaren arabera, bai harremanak ahalbidetzeko, informazioa errazteko, kandidaturretan jendea sartzera bulkatzeko etab., lan honek garbi azaldu behar du Apiriletik aurrera, HB erre jarriz sindikatuaren helburuen alde ekiteko. Baskongadetan hauteskundeak udazkenean direnez, nahitaezkoa da uda baino lehen lanik gehiena «egina» egotea edo aurreratua, gero hauteskundeak udazkenean direnez, nahitaezkoa da uda baino lehen lanik gehiena «egina» egotea edo aurreratua, gero hauteskunde-ekaitzerako prestakuntzetan zentratu arituko bait dira komite lokalak. Hauteskunde sindikaletarako zona nahiz herrietako batzordeek premia, helburu eta abarren planing bat burutua eduki behar dute, horren arabera HBk lagundu ahal izateko garatu beharreko konpromezu zehatzei erantzunez.

- KAS: Blokeo militantegoak biziki sentikor jokatu behar du hauteskunde hauetan. Burruka sektorial nahiz globaletarako ekarpenik eskatzen zaigun gisa berean (gure karakterizazio sozial-politikoaren arioren berezkoak zaizkigunak baina ENAM multzoko premiak osatzera bideratuak), funtsezkoa da erabat KASeko adiskideei hauteskunde sindikaletan egin dezaketen ekarpen AKTIBO ETA ZUZENAREN garrantzia ikus eraztea. Komite Lokalen lan eta ekarpenetik hasita, alderdiak bere «zubi» eginkizunagatik edo HBko «mundutxo» gehiago ezagutzen dutelako, burutzen ahal duen lan berezira. Entenditu behar dugu hauteskunde sindikal hauek ez direla LABen desafioa bakarrik, ENAM osoarena baizik. LABeko militantegoak gogor jokatu behar du inplikazio hau

eman dadin eta, jakina, gainerako organizazioetako egiturek zabalik egon behar dute analisisirako nahiz iharduerarako emanen diren direktziaz jasotzeko. Sindikatuak, gogoeta hau errazago egitearren, zirkular bat prestatuko du Blokeko militantegoak egin dezakeen ekarpenaren aspektu zehatzagak definituz.

5.3.5. LAB-en lerro praktikoak.

Hauteskunde sindikaletan LABek egiten duen presentazioko aspektu zehatzei dagokionez, LABek aurreko hauteskunde kanpaitako jokamolde berdinekin jarraituko du.

- LABek bere zerrendak aurkeztuko ditu eta ez ditu onartuko ente unitarioetan «galtzea» eskatzen duten alternatibak, sindikatua ahultzeko besterik ez direlako eta baldintzatu ere egiten dutelako euskal langileen kontzientzia politikoa eta klasekoaren indartzeko giltzarria den lan sozial-politikoa.

- Zerrendak edo kandidaturak nola bete sekzio sindikal bakoitzean planteiatu behar da. Baloratu langile interesen defentsaren alde ospe, gaitasun eta erreferentzi polo izan daitekeen pertsonen balioa. Eta hesparru honetantxe saiatu behar dugu eskusibismoak eta planteiamendu dogmatismoak hausten, horrela sindikatua, berau karakterizatzen duten parametro orokorrekintan sintonian, KAS edo ENAM beraren sentibilitateei ez bezalakoei erantzun ahal izateko giza-kapital batez horni dadin.

Hildo honetan, sekzio sindikala izanen da, Elkarte Lokala, Euskaldekoko edo Hauteskunde Sindikaletako Batzordearekin konektatuz, lantoki bakoitzean LABeko zerrenda moldatuko duena, egituraren (hartarako dena) eskuhartzea premiazkoa izanik baldin eta isilurik ematen bada. Honela lortuko dugu egituraren «gehiegizko eskuhartze» zuzenik ez izatea zerrendak burutzerakoan, naiz eta

jarraipen-lan bat egitea positiboa eta ekidin ezina izanen den leku bakoitzeko prozesuan garapena behar bezala baloratzeko txosten honetako orientazio orokorrak kontuan izanez.

5.4. LAN-PLANGINTZA.

5.4.1. Hauteskunde Batzordeak.

Maila desberdinetan (eskualdea, herrialdea, nazioa), berauek dira hauteskunde aurreko eta garaiko garapenaren erantzuleak.

Dagoeneko eratuak daude eta beraien lana da lurralde zein sektoretako egiturei lanaren erritmoa eta dinamika seinalatzea. Denen eta bakoitzaren dinamikaren eta elkarren arteko koordinazioaren mende egonen dira gure organizazioko aparato guztiak eta bakoitza. Propaganda eta Diruzaintza batez ere.

Beren lanetan, plangintza eta ahalik eta aurrikuspenik handiena, oinarritzko erispideak izan behar dute.

5.4.2. Lurraldeka eta sektoreka diren egiturak.

Kanpaina osoan saiatu behar dute beren bilera dinamika mantentzen, nahiz eta aparatu guztiak (Heziketa, Ekintza, Errebindikatiboa, etab.) eta organoen (I.N., H.H.II, etab.) erantzunkizuna izanen den hauteskunde sindikalei lehentasunezko dedikazioa erraztea eta ahalbidetzea.

5.4.3. Sekzio Sindikalak.

Jendetsuenetan batipat, beren eskualdeko hauteskunde batzordearen zerbitzura jarriko dira benetan, lehentasuna emanaz kanpainako eginbeharrei. Organizazio osoa indartzea sekzioak indartzeko ere garrantzia izanen da.

5.4.4. Liberatuak.

Garbi dago organizazioak duen militante-
go liberatua ez dela aski izanen hauteskunde sindikal hauek sortuko dizkiguten premiak betetzeko.

Hauteskunde Batzordeek beraiei dagozkien lurralde-egiturei proposamen zehatzek egin behar dizkiete pertsona liberatu berriak, hauteskunde sindikaletarako bakarrik, izenda ditzaten. Izendapenerako erizpide nagusia gaitasun organizatzaile eta dinamizatzaile izanen dira. Zehazki erabakiko da nolako lanak eta zenbat denboraz aritu beharko duen, eta ahaleginduko gara pertsona horiek ordu pilaketaz baliatzen diren delegatuak izan daitezten. Honetara, inolako konpromezurik hartu baino lehen, herrialde bakoitzeko eta nazioko hauteskunde Batzordeetan koordinatu egin beharko dira nola dauden premiak halaukeran diren pertsonen zerrenda ere, helburua ahaleginek ahal fruturik gehien izatea delarik. Hauteskunde Batzorde Nazionalak behin betiko proposamena zuzenduko dio I.N.ari, onetsia izan dadin.

5.4.5. Heziketa.

Honen lana izanen da materialak, programak eta abar moldatzea Hauteskunde Batzordeek beren lanak aspektu legaletan garatu ahal izateko behar duten ezagutza teknikoak errazteko. Berebat, «hauteskunde karpeta» prestatuko du (edo batzuk egotera kontuan izanik), Hauteskunde Batzordeek hauteskunde prozesua jarrai dezaten izendatutako militanteei laguntzeko (arautegia, lege gorabeherak, aginduak, erreklamazioetarako formulario-motak, e.a.)

Hauteskunde Batzordeen lana da, berriz, Heziketakoari dagozkien ikastaroak egiteko zein diren egunik aproposenak eta baita detektatzen doazen bestelako premiak zein diren jakin eraztea.

5.4.6. Propaganda.

Iharduera programa bat prestatuko du maila desberdinetarako:

A) Propaganda komuna, hauteskunde hesparru guzietarako (kartelak, hirukiak, etab..., baita Heziketakoak prestatutako materialak ere).

B) Sekzio sindikal edota hauteskunde barrutietarako propaganda.

D) Sektoreetarako propaganda, dituzten ezaugarriengatik edo transzendentziagatik hala behar denean.

Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak aurrekontua egingen du «B» mailarako eta dagokion herrialdeko Hauteskunde Batzordeari igorriko.

Herrialdeko Hauteskunde Batzordeak «B» eta «D» mailetakoa aurrekontuak Naziokoari aurkeztuko dizkio.

Hauteskunde Batzorde Nazionalak hiru mailetakoa aurrekontuak I,N.n aurkeztuko ditu onetsiak izan daitezen.

5.4.7. Diruzaintza.

Dirusail apartekoa habilitatuko da, ohiz-

ko aurrekontuaz gain, honako gastu hauei aurre egiteko:

A) Hauteskunde propaganda.

B) Hauteskunde heziketa.

D) Organizazioaren kontura liberatu izateko izendatutako pertsonen ordainketak.

Gogora arazi dezagun berriro ere Diruzaintza zentralizatua dugula eta horrek kanpainan garaian ere horrela izaten segi dezan, behar-beharrezkoa dela Hauteskunde Batzordeek beren premiak behar bezain garaiz eta ahal den koordinatuenik planifikatzea eta zehaztea.

5.4.8. Prentsa.

LABek hauteskunde prozesu osoan komunikabideekiko harreman-plangintza bat egin behar du, baita (hau agian nazio mailan) diseinaturiko aitzinkanpainarako ere. Prentsa aparatuak sendotze serioa behar du sindikatuak hauteskunde hauetan area desberdinetan izanen duen lana osagarritzeko. I.N., gutxi barru, gai hau aztertuko duen premiazko plenua egingen du eta jakineraziko zaio militantegoari.

